

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako lau departamentuk aurkeztu dute Lanbide Heziketaren 2017-2020 Plan Estrategikoa

*Planaren garapenean parte hartu duten ehundik gora eragile elkartu dira
Hezkuntza departamentuan egindako ekitaldian*

Astelehena, 2017.eko uztailak 3

Espezializazio

Adimentsuaren Nafarroa-S3
Estrategiari babesa ematea,
gizartearen kohesioari eta
jasangarritasunari ekarpena
egitea eta lanbide heziketaren
eskaintza indartzea eta
etengabea eguneratzea dira
Lanbide Heziketaren Plan
Estrategikoaren hiru ardatzak.

Aurkezpenean izan dira, Maria
Solana Hezkuntza kontseilariarekin batera, Manu Aierdi eta Miguel Laparra
lehendakariordeak eta Isabel Elizalde kontseilaria. Hezkuntza zuzendari
orokor Roberto Perezek eta Lanbide heziketa zerbitzu-zuzendari Esther
Monterrubiok itxi dute ekitaldia, luntxaren aurretik.



Kontseilariak eta kargudunak ekitaldiaren

Lanbide Heziketaren 2017-2020 Plan Estrategikoa aurkeztu dute
gaur Nafarroako gobernuko lau departamentuk. Izan ere, Hezkuntza
departamentuak sustatu badu ere, Lanbide Heziketaren 2017-2020 Plan
Estrategikoa Nafarroako Gobernuaren Garapen Ekonomikoa, Eskubide
Sozialak eta Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa
departamentuekin elkarlanean garatuta da. Hala, Maria Solanaren ondoan
izan dira aurkezpenean Manu Aierdi eta Miguel Laparra lehendakariordeak
eta Isabel Elizalde kontseilaria.

Lanbide Heziketaren 2017-2020 Plan Estrategikoa Nafarroako
Gobernuaren Espezializazio Adimentsuaren S3 Estrategiaren ezinbesteko
euskari gisa aurkeztu dute. Lurralde antolaketa, inguruko enprekin
elkarlanean gizartearen beharrei erantzutea eta baliabideen inbertsioa
sustatzeko egitasmoa. Izan ere, Lanbide Heziketaren aldeko estrategiak
eta aurrekontu konpromisoak Nafarroko enpleguaren oreka eta kalitatea
hobetzen lagundu behar dute, ehun ekonomikoaren zein gizarte eta
lurraldearen beharrekin koherentzian. Ondorioz, Hezkuntza
Departamentuak sustatutako Plan transbertsala da zeinak bilatzen duen,
batetik, lanbide heziketa balioan jartzea hezkuntzaren eta trebakuntzaren
kalitatea eta efizientzia hobetuz eta, bestetik, ikasleen aniztasunari eta
berrikuntza premiei erantzutea, inbertsio sustengarria sustatuz

Nafarroako hainbat gunetan.

Lanbide Heziketaren Plan Estrategikoaren hasierako garatze-prozesuan gaiarekiko interesa duten ahalik eta sektore gehienen parte hartzea bilatu da. Hala, Nafarroako Gobernuaren bost departamenturen batera (Hezkuntza, Garapen Ekonomikoa, Eskubide Sozialak, Osasuna, Landa Garapena) ekarpenak egin dituzte baita ere agente ekonomiko eta sozialek, hainbat sektoretako enpresa-adituek, irakasle eta formatzaileek nahiz elkarteek, antolatutako 13 mahai teknikoen bidez, elkarte eta enpresa sektoreekin egindako 22 lan-saioen bidez eta aditu eta enpresa-zuzendariekin izandako 170 elkarrizketen bidez, guztira 400 lagunek ekarpenak jasoz. Azpimarratzekoa da, aldiberean, Planaren diseinuan parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aldi honetan aritu diren agente guztiak; izan ere, horrek adierazten baitu lanbide heziketari egiten zaion aitortza elementu estrategiko gisa pertsonaren, gizartearen eta arlo ekonomikoaren garapenean Nafarroan, eta, era berean, ongizatearen giltzarri diren faktore horien hobekuntzan eragiteko tresna lortzeko interesa agerian uzten du.

Lanbide Heziketaren Plan Estrategikoaren lehenengo proposamena oinarritzko 3 ardatzen bueltan gauzatu da: 1) Espezializazio Adimentsuaren Nafarroa-S3 Estrategiareri babeska Lanbide Heziketatik; 2) Gure gizartearen kohesioari eta jasangarritasunari ekarpena; 3) Lanbide Heziketaren indartzea eta eguneratze etengabea.

Ekintza esanguratsuenen artean, berriz, hurrengoak azpimarra daitezke:

- **Heziketa-ziklo berrien eskaintza sortzea.** 2017/2018 ikasturterako lanbide heziketaren eskaintza hazi egin da: erdi mailako 8 ziklo eta goi mailako 7 gehiago, batz bestek %7 hazi da eskaintzako plaza kopurua. Gainera, online-eskaintza ere hazi egin da goi mailako 3 ziklo berriekin. Era berean, Oinarritzko Lanbide Heziketaren eskaintza ere igo egin da, 5 ziklo berriekin.

- **Eskaintza Nafarroako hainbat gunetan bermatzea.** Aurretik aipatutako ziklo guztietatik zortzi lruñetik kanpoko gune geografikoetan eskaini dira; eta, era berean, eskaintza berriak **bost ziklo gehitu dira euskaraz.**

- **Formakuntza curriculumak eguneratzea.** Onarritzko, erdi mailako, goi mailako, lanbide heziketa bereziko eta kirol-ikasketetako 29 curriculum berri onartzeko edo argitaratzeko tramitean dira.

- **Enpresen elkarlana laguntzea formakuntzan.** Hurrengo ikasturtean bi ziklo berri gehitu dira dual ereduaren eskaintzara.

- **Ekintzailatza, sormena eta teknologia nahiz didaktika berrikuntza arloetan proiektuak sustatzea.** Ikasturte honetan dagoeneko ehun irakasle inguruk parte hartu dute metodologia aktiboen irakaskuntza-ikasketaren formakuntzan eta aurrerantzean ere horretan jarraituko da. Gainera, berrikuntza proiektuen deialdia berrartu da eta lau proiektu berri onartu dira.

- **Elkarlana eta koordinazioa indartzea Nafar Lan-Sarearen eta Hezkuntza Departamentuaren artean.** Gaitasun profesionalaren eta enplegu formakuntzaren ziurtatze prozeduretan elkarlanean ari dira dagoeneko. Arlo horretan, langileen formakuntzara bideratutako eskaintzan are modu estuagoan ari dira Hezkuntza departamentuaren menpeko ikastetxeetan.

- **Azpiegitura, hornitze eta instalazioen aurrekontua gehitzea.** Hezkuntza Departamentuan, eta lanbide heziketari dagokionez, 2017an lan eta azpiegiturarako inbertsioa 3.557.000 eurokoa da, 2016an egindako inbertsioaren hirukoitza, gutxi gorabehera, eta 2015eko inbertsioaren boskoitza.

Beraz, aurreikusitako ekintzak ez dira asmoen adierazpena mugatzen; izan ere, dagoeneko gauzatzen ari diren ekintzak dira Lanbide Heziketaren Plan Estrategikoak ezarritako ildoari jarraituz.